

Olaia L. Garaialde Iruñea

Mugimenduaren bidez bidaia bat irudikatu nahi du Idoia Rodríguez dantzari eta koreografoak (Iruñea, 1996). Riart Company sortu, eta *Dérive* obra taularatzten ari da Rafa Arenas dantzariarekin eta koreografoarekin. Elizondoko Foruen plazan izan ziren atzo; *Dérive* plazaratu eta parkour show bat egin zuten. Horrez gain, irailean, doako ikastaroak egingen dituzte Iruñeko karriketan.

Zer esan nahi du *Dérive*-k?

Frantsesetik dator. Denok egin behar dugun bidea irudikatzen du. Ez dakigu nora goazen, baina zerbaitek gure bidea marrazten duenez, joan nahi ez dugun arren, bide horretatik goaz.

Bide hori islatu nahi izan duzue?

Bai; batez ere, erakutsi nahi izan dugu orokorrean gizarteak ez dakigula nora goazen. Estereotipo asko daude, eta esaten dute nolakoak izan behar dugun, nola jokatu behar dugun eta zein esperientzia izan behar ditugun.

Boterea eta menpekotasuna landu dituzue. Zergatik?

Gizonek izaten ohi dutenez boterea, islatu nahi genuen zer gertatzen den rolak aldatu, eta emakumeek hartzen dutenean boterea, eta horrek zein erreakzio eragiten dituen. Horrez gain, emakumeen eta gizonen arteko elkarriketa bat sortu dugu konponbide bat bilatzeko eta bata besteari zer eskaintzen ahal dion elkarrekin aztertzeko.

Hortik hara, badago beste interpretazioetarako lekua?

Gauza batzuk oso agerikoak dira, eta beste batzuk, berriz, behar bada, ez dira ikusten edo ez ditugu landu, baina jendeak bere egin ditu. Dena lotzen duen hari bat egon arren, norberak berera eramanezake istorioa.

Zuen bizipenetatik abiatu zarete?

Pertsonalki zein sozialki jasotzen ditugun gauzetatik sortu dugu.

Bidaia bisual bat islatu nahi izan duzue. Zer esan nahi du horrek?

Bidea dramaturgia da, istorioa. Ikusle gisa gauzak ikustea edo artista gisa hori irudikatzea zaila da; batzuetan, soilik dantza ikusten dugulako. Uste dugu lagungarria izan daitekeela dantza antzerkiarekin uztartzea istorioa hobeto ulertzeko, eta gauzekin, kontzeptuekin eta pertsonekin identifikatuta sentitzeko.

Binakako ibilbide bat da; nolakoak da elkarrekin sortzea?

Politik eta zaila da. Bakoitzak modu batean pentsatzen edo sentitzen ditugunez gauzak, batzue-



INIGO URIZ / FOKU

«Binaka dantzatzea gorputzen arteko elkarriketa bat da»

Idoia Rodríguez • Dantzaria eta koreografoa

Botere harremanak, estereotipoak, presio soziala eta beste landu ditu Idoia Rodríguez dantzariak 'Derive' obran. Elizondon plazaratu zuen atzo, eta irailean, doako dantza ikastaroak egingen ditu Iruñeko kaleetan.

tan, bakoitzak ideia bat dauka, eta ez dugu bestearena kontuan hartzen. Gure ideia ona izan arren, batzuetan, baztertu egin behar dugu, eta ulertu agian ez dela proiektu honetarako. Ideien arteko oreka behar da, eta, horretarako, komunikazioa oso garrantzitsua da.

Konfiantza ere behar da?

Bai, bi norabidetan: zeure buruari konfiantza zein bikoteki-dearekiko. Ez badago konfiantzarik, ez du funtzionatzen.

Dantzaren zaretenean pertso-

na bakarrik zaretela dirudi. Zer sentitzen duzu?

Binaka dantzatzea bi gorputzen arteko elkarriketa bat da. Guztiz aldatzen da gorputz bakoitzak mugimendu bat duelako. Oreka bat bilatu behar da; zuk hitz egin eta, gero, nik. Erraz ikusten da noiz pentsatzen dugun berdin, noiz ez dugun elkar ulertzen eta noiz dagoen konfrontazioa, hain zuzen ere.

Bakarka ere aritzen zara. Zertan sumatzen duzu aldea?

Bakarrrik dantzatu arren, inoiz ez

zaude bakarrik, musikariak, diseinatzaileak, eszenografoak eta argi teknikariak daudelako. Nor bere burua ezagutzeko oso aukera ona da, baina, aldi berean, zu zara aurrera jarraitzeko motibazio bakarra, eta hori oso gogorra da. Jende gehiagorekin lan egiteak aukera ematen dizu beste perspektiba batzuetatik gauzak lantzeko eta egiteko. Mundu asko irekitzen dizkizu.

Hiriko dantza, parkourra eta dantza garaikidea uztartzen dituzue. Zerk lotzen ditu?

Mugimenduak. Denak gorputzaren bidez adierazten dira.

Nolatan hasi zineten parkour ikuskizunak ere egiten?

Rafak [Arenas] urte luzez *Danzad*, *Danzad*, *Malditos* jaialdian parte hartu du. Jaialdi horretan zenbait dantza ikuskizun daude, eta ikusleak toki batetik bestera eramaten dituen parkour talde bat dago. Rafak ikusi zuen oso polita izan zitekeela beraiekin zer-bait sortzea, zer-bait berezia dago-

«Uste dugu dantza antzerkiarekin uztartzea lagungarria izan daitekeela istorioa hobeto ulertzeko»

«Parkour egiteko espazioak daude, guk sortzen ditugulako. Hiri-altzariak erabiltzen ditugu horretarako»

elako parkourrean. Horregatik, elkarlanean aritzeko Carmen Larrazekin, jaialdiaren zuzendaria-rekin hitz egitea erabaki genuen. Zein zentzutan diozu zer-bait berezia dagoela?

Gazteek barruan dutena azalartzen laguntzen duelako parkourrarak.

Nola lan egiten duzue?

Zortzi pertsonaz osatutako talde bat sortu genuen. Batzuk irakasleak dira, eta beste batzuk, ikasleak. Rafak eta biok sortu dugu proiektua, baina funtzionamendua horizontala izan da. Saiatu gara beste leku batzuetan ez duten espazio segurua sortzen. Hasieran, soilik tailerrak egiten genituen, hala nola parkour, dantza garaikidea eta kontakt. Horri esker, ikusi genuen beste gauza batzuk ikasi nahi zituztela; adibidez, nola egin proiektu artistiko bat, nolako den zuzendari izatea eta koreografo batek zer egiten duen.

Badago lekuri Iruñean parkourrarentzat?

Batez ere, komunitatea dago. Parkour egiteko espazioak daude, guk sortzen ditugulako. Hiri-altzariak erabiltzen ditugu horretarako. Jendea errespetatzen dugun arren, ez dugulako jauzi egiten ondotik pasatzen direnean, beti baten batek zer-bait esaten digu.

Aurrera begira zer asmo duzue?

Irailean, ziurrenik kalean egiten ditugun doako ikastaroekin hasiko gara. Kalean egiten ditugu, ez dugulako nahi jakintza etxabeetan geratzea. Jakiteko zenbat jende etorriko den izena emateko eskatzen dugu, baina badira ikustera etorri, eta egunean bertan animatzen direnak ere.